

Usoetako bat, katu?



Katua Usategian

Jatorrizko izenburua: *Cat Among The Pigeons*

Egilea: Agatha Christie

Itzultzailea: Koro Navarro

Argitaratze urtea: 2006

Argitaletxea: Igela

INMA ERREA

Ingelesean, *katua usoen artean paratu edo uzteak* arazoak eta istiluak sorraraztea esan nahi du. Agatha Christieren nobelan, ia kontakizunaren erdia iragan eta gero agertzen da lehen aldiz esapide hori, 154. orrialdean, Eileen Rich irakaslearen hitzetan: “Nire iritzian, bada hemen okerreko zerbait (...). Gure artean egotea ez dagokion norbait balego bezala (...): katua usategian, irudipen klase hori. Gu gara usoak, denok, eta katua gure artean dago. Baina ezin dugu katua ikusi.”

Horixe, *katua* –kasu honetan, hainbat irakasleren hiltzailea– nor den asmatzea da nobelan bere 362 orrialdeetan barna irakurleoi egindako proposamena. Horretarako, Agatha Christiek Britaina Handiko goiko gizarte-mailako neska gazteen *heziketa egokia* helburu duen Meadowbank ikastetxeko giroan murgilduko gaitu, eta hor halako ikastetxeek ohikoak dituzten moldeekin eta pertsonaiekin –itzal handiko irakasle burutsuekin, familia aberatsetako ikasleekin...– eginen dugu topo. Ez dira faltako ingelesaren artean oro har eta Agatha Christieren nobeletan partikularki hain maiz agertzen diren ekialdeko herrialde urrunetatik iristen zaizkigun oihartzun exotikoak.

Kultura ingelesaren baitan klasikotzat jo dezakegun giroan, Christiek hilketa batzuen egilea nor izan daitekeen paratuko digu amu, eta gero, gure kabuz igarri ezin izan dugulakoan, Christiek sortutako lehen detektibea sarraraziko du agertokian, beste behin: Hercule Poirot belgiarra. Horrek argituko du intriga.

Baina detektibe-nobeletan desegiteko proposatu ohi den korapiloarekin batera, beste hainbat hari mugitzen ditu Christiek nobela honetan: Honoria Buldstrode ikastetxeko zuzendariak erretiro hartzekotan dabilela bere postua betetzeko irakasleen artean abiarazitako hautatze-prozesu bitxia, nazioarteko gorabehera politikoak, Ekialdeko eta Mendebaldeko tradizioen elkartzeko zaila, arrazakeria...

Osagai horiekin nobela betea eraiki zuen Christiek, misteriozko nobelen zaleak asetzeaz gain bestelako irakurleengan ere interesa pizteko gauza dena.

Batzuek diotenez, Agatha Christieri “liburu polit entretenigarriak” egitea gustatzen zitzaion, eta zeregin horretan zinez ibilbide luze eta oparoa osatu zuen: intrigazko 80 bat nobela eta antzezlan, 1920tik –hots, Hercule Poirot detektibea lehen aldiz protagonista izan zuen *The Mysterious Affair at Styles* lehen nobela idatzi zuenetik– 1976ra arte –hil zen urtera arte, alegia– idatziak, eta dozena erdi bat nobela amodiozko, Mary Westmacott ezizenarekin sinatuak.

Horietatik guztietatik batzuk-batzuk euskaraz irakur ditzakegu, hala nola Txertoak eskainitako *Monsieur Poiroten ikerpenak* (1989) eta *Hamar beltz* (1990), Hiriak argitaratutako *Gizon mantsoa* (2004) eta Igelak kaleratutako *Orient-Expresseko Hilketa* (2004), Roger Ackroyden *Hilketa* (2004), *Eta Ez Zen Alerik Ere Geratu* (2005), *Heriotza Nilo Ibaian* (2006) eta, azkenik, gaur hona hizpide ekarritakoa, *Katua Usategian*, Koro Navarro misteriozko literatur-lanez bezainbatean eskarmentu handiko itzultzaileak euskaratuta. Detektibe-istorio zale euskaldunok badute zerekin gozatu.